



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Arriaga Antzokiak *Mari-Eli* zarzuela berreskuratu du, oso gutxitan oholtzaratu den Jesús Guridiren ahaztutako obra liriko bat

- Arriaga Antzokiak ekoitzi eta oholtzaratuko du ikuskizun hau, BBK Fundazioaren lankidetzarekin, eta antzokian bertan izango da estreinaldia, bihar asteazkenean, apirilaren 30ean, 19:30ean, eta maiatzaren 1ean, 19:00etan.
- Jon Malaxetxebarria arduratzen da musika zuzendaritzaz eta, bestalde, Calixto Bieito da eszena zuzendaria eta eszenografiaren arduraduna.
- Andrea Jiménez, Botond Odor, Gexan Etxabe, Fernando Latorre, Lara Sagastizabal, Christopher Robertson eta Julen García dira *Mari-Eli* interpretatzen duten ahots solistak.
- *Mari-Elin* parte hartzen dute halaber Bilboko Koral Elkarteak eta Bilbao Orkestra Sinfonikoak (BOS), eta Iñaki Maruri, Mitxel Santamarina eta Ugaitz Alegriak osatzen dute antzeztaldea.

Bilbo, 2025eko apirilaren 29a.- Egun bat besterik ez da falta **Jesús Guridiren *Mari-Eli*** zarzuela estreinatzeko, zeina **Arriaga Antzokiak BBK Fundazioaren** lankidetzarekin egindako produkzio berri bat baita. Ekitaldi berezia bihar izango da, apirilaren 30ean, 19:30ean. Hurrengo egunean, maiatzaren 1ean, ostegunean, beste emanaldi bat egongo da, 19:00etan, ordu erdi lehenago, jaieguna delako.

Mari-Eli proiektu oso berezi bat da, zeina Guridiren zarzuela nahiko ezezagun baten jatorrizko partitura berreskuratuzetik sortu baita. Berez, balio aipagarria da XX. mendeko euskal konpositore garrantzitsuenetako baten ondare musikala berreskuratzea, hemendik aurrerako legatuari egindako ekarpenegatik beragatik, baina oso garrantzitsua da halaber, bere horretan, hainbat osagai erakargarri dituen ikuskizun bat estreinatu ahal izatea. Besteak beste, aipatzeko modukoa da **Calixto Bieito**k zuzenduko duela eszenari dagokionez.

Musikari helduz, *Mari-Eli* Jon Malaxetxebarriak zuzenduko du, zeinak bere batutarekin Arriaga Antzokiaren beste ekoizpen propio bat gidatuko baitu, Saturrarán operarekin egindako lan bikainaren ondoren. Interpretazioaz ahotsen talde bikain bat arduratuko da, **Andrea Jiménez, Botond Odor eta Gexan Etxabe** buru direla; *Mari-Eli*, José Mary eta Telesfororena egingo dute, hurrenez hurren, maitasunari eta (batez ere) adiskidetasunari buruzko istorio honen protagonista gisa. Halaber, pisu handia dute obran **Fernando Latorre eta Lara Sagastizabalek**; bestalde, **Christopher Robertsonek eta Julen García**k osatzen dute ahots solisten taldea.

Antzeztaldean hiru aktore daude ikuskizunari komikotasuna emateko, obra testuinguruan kokatzeko eta haren istorioa taxutzen laguntzeko: **Iñaki Maruri** (abestutako ahots ekarpen aipagarria ere egiten du), **Mitzel Santamarina** eta **Ugaitz Alegria**.

Azkenik, aipatu behar da Jesús Guridiren konposizioaren indar musikalak dimentsio osoa hartzen duela **Bilboko Korral Elkarteari** (Enrique Azurzak gidatuta), eta **Bilbao Orkestra Sinfonikoari (BOS)** esker.

Oholtzaratzea

Mari-Eli oholtzaratzeari dagokionez, Calixto Bieitok agertokian hainbat diziplina nahastearen aldeko apustua egin du: musika, kantua eta aktoreen antzezpena daude, jakina, baina baita dantzak eta koreografiak ere. Eszenografia, Bieitok berak sortua, oso eskultorikoa da eta, une jakin batzuetan, instalazio baten antza hartzen du: bere sormen-zigiluaren alderditzat har dezakegu hori, berak egindako beste ikuskizun batzuetan ere mota horretako apustu estetikoak ikusi ahal izan baititugu. Horrez gain, Bieitok zenbait elementu eta eszena eransten dizkio ikuskizunari, eta horiekin, nolabait, egungo gizartearen islak sartzen ditu. Isla errealista horiek agerian geratzen dira **Oscar Armendarizek** diseinatutako jantzetan ere. Abesbatza Zarzuelaren garaiko jantziekin ikusiko dugu. Solistek, aldiz, gaur egungo arropa garaikideagoak izango dituzte soinean.

Hala ere, Bieitoren beste apustu bat, bideo-proiektzioak sartzearena, ikuspegi errealistago horri kontrajartzen zaio. **Sergio Verdek** sortutako irudiek izaera nahiko onirikoa duten elementu zinematografikoak ematen dizkiote *Mari-Eli*ri, ametsen, oroitzapenen, benetakoa ez den horren eta abarren ideia iradokitzen duten irudiak erakutsiz.

Mari-Eli, jatorria

Arriaga Antzokiak ekoiztutako eta BBK Fundazioaren laguntzaz sustatutako Jesús Guridiren Zarzuelan, lan garrantzitsua egin da zarzuela horren musika berreskuratzeko.

Mari-Eli Madrilen estreinatu zen 1936ko apirilean, **Carlos Arniches eta Eloy Garayren** libretoarekin eta, Gerra Zibilaren ondoren, 1941ean, antzeztu zen Bilbon, Bilboko Korral Elkartearen denboraldi lirikoaren barruan. Obrak Guridi desberdin bat erakusten digu, lanaren izaerari dagokionez, baina oso ezaguna haren idazkera musikalaren kalitateagatik. Jesús M^a Arozamenak honela deskribatzen du *Mari-Eli*: «Itsas kutsuko euskarazko zarzuela, melodia gogoraerazak eta pasarte komikoak dituena, garaiko gustuen arabera».

Musikalki, konposizioari edertasuna dario, oso zarzuela melodikoa da eta, une batzuetan, estilistikoki musikalaren generora hurbiltzen da. Abesbatzaren emanaldi oso alaiak ditu, zeinak ederki uztartzen baitira abestien gaiarekin.

Adiskidetasunari buruzko istorio bat

Mari-Eli, muinean, haurtzaroko hiru lagunengatik istorio bat da: aldarera mutil batekin eraman nahi duten baina beste bat maite duen emakume baten istorioa kontatzen du.

Ikuskizuna ulertzeko modu librean, Calixto Bieitok adiskidetasunaren balioa azpimarratu nahi izan du, maitasunaren balioaren gainera. Maitasunak eragiten dituen buruhauste emozionaletatik harago, adiskidetasuna gailentzen da: ideia horrek laburbiltzen du obraren kontzeptu narratiboa.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 21 eta 42 euro artean (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Mari-Eli

Musika: **Jesús Guridi.**

Carlos Arniches eta Eloy Garayren libretoaren moldaketa librea.

Musika zuzendaritza: **Jon Malaxetxebarria.**

Zuzendaritza eszenikoa eta eszenografiaren diseinua: **Calixto Bieito.**

Antzezleak:

Mari-Eli: **Andrea Jiménez.**

José-Mary: **Botond Odor.**

Telesforo: **Gexan Etxabe.**

Antón: **Fernando Latorre.**

Nicolasa: **Lara Sagastizabal.**

Serafín: **Iñaki Maruri.**

Bachi: **Christopher Robertson.**

Verdel: **Julen García.**

Don Teo: **Mitxel Santamarina.**

Mendigorrieta: **Ugaitz Alegria.**

Abesbatza: **Bilboko Koral Elkarte.**

Abesbatzako zuzendaria: **Enrique Azurza.**

Orkestra: **Bilbao Orkestra Sinfonikoa (BOS).**

Figuranteak: **Jon Ander Muñoz, Endika Palacios, Manuel García, Yeray Gómez**

Zuzendari laguntzailea: **Lucía Astigarraga.**

Argiztapenaren diseinua: **Michael Bauer.**

Figuringilea: **Oscar Armendariz.**

Irudiak: **Sergio Verde.**

Partituraren edizioa: **Ángel Briz.**

Musika-zuzendari laguntzailea: **Nicolás Serrano**

Arriaga Antzokiaren produkzio berria

BBKren lankidetzarekin

Informazio gehiago:

Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA

Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307

comunicacion@teatroarriaga.eus

www.teatroarriaga.eus